

Munduko


III. Rugby Txapelketa

# Zeelanda Berriak Kopa eskura

Aurreneko Mundialean irabazitako Kopa berriz lortzeko faborito nagusia da

14.45 - TF1 - Eurof - C+(Esp)

HEGO AFRIKA	Z. BERRIA
Kitch Christie	Laurie Mains
1 Du Randt	1 Dowd
2 Rossow	2 Fitzpatrick
3 Swart	3 Brown
4 Wiese	4 Jones
5 Strydom	5 R. Brooke
6 Piennar (Kap.)	6 Brewer
7 Kruger	7 Kronfeld
8 Andrews	8 Z. Brooke
9 V. Westhuizen	9 Bashop
10 Stransky	10 Mehrtens
11 Williams	11 Lomu
12 Le Roux	12 Little
13 Mulder	13 Bunce
14 Small	14 Wilson
15 Joubert	15 Osborne



Zeelanda Berriko eta Hego Afrikako aurrelarien arteko lehia izugarria izango da hasieran.

Zelaia: Ellis Park (Johannesburg)

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Zeelanda Berriak eta Hego Afrikak jokatuko dute gaur Munduko III. finala, Johannesburgeko Ellis Park zelai mitikoan, 65.000 ikusleren aurrean. Zeelanda Berriak bigarren finala jokatu du bitartean, afrikarrek lehenengoa izango dute. All Blacksek 87ko finalean Frantzia gaititu zuen 29-9 Aucklanden.

Bigarren Mundialean, berriz, finalerdietan Australiak irabazi zion 16-6 Dublinen. Ondorioz, hirugarren postua lortzeko Eskoziaren aurka borrokatu zen Cardiffen, eta 13-6 nagusitu. Mundial honetako finalera iristeko, partidu guztiak irabazi dituzte bi taldeek, baina zertxobait errazago zeelandarrek. Hego

Afrikak ozta-ozta kanporatu zuen Frantzia finalerdian 19-15, eta All Blacksek 45-29 Ingalaterra. Fitzpatrick kapitaina besterik ez da geratzen aurreneko Mundialeko finaletik. Bestalde, Little, Bachop, Zinzan Brooke, Jones eta Fitzpatrick bera dira Eskoziaren aurka aritu zirenak. Beraz, esperientzia aldeko dute zeelandarrek, Gerard Murillo Iparraldeko adituak aipatzen dituenekin batera.

Hala ere, honela mintzatu da Kitch Kristie Hego Afrikako entrenatzailea: «All Blacksek ez dira garaitezinak eta nire jokalariek nahikoa izango dute aurkako jokalariei klabeak presionatzea, batez ere Bachop eta Mehrtens, garaipena lortzeko. Ezin diogu 10 edo 15 metroko abantaila

eman Bachop mele-erdiari, bestela, arazoak izango ditugu Zeelanda Berria menperatzeko. Gainera, aurreneko 10 minutuetan guk kontrolatu behar dugu jokia, erabakigarriak izango baitira».

Laurie Mains Zeelanda Berriko entrenatzailea ez zen oso gustora geratu azken partiduetako azken 20 minutuekin, eta neurketa hau irabazteko argi adierazi du: «Dudan beldur bakarra da, Eskozia eta Ingalaterraren kontra jokatuako partiduetan, jokalariek azken 20 minutuetan izan zuten erlaxatzea. Hori gertatzen bada, galtzaile izango gara».

Hego Afrikak ez dio inoiz irabazi Zeelanda Berriari, 92an berriro nazioartekora itzuli zenetik. Bi partidu jokatu zituzten iaz Zeelanda Berriari eta biak irabazi

zituzten All Blacksek, 22-14 eta 13-9. Ikusgarria gertatuko da lehen minutuetako borroka aurrean. Beltzek lortzen badute orain arte egin duten jokia aurrean, ez dugu uste ihes egingo dienik garaipenak. Aurrez aurreko ikusgarriena, Small eta Lomu hegalean artekoa izango da.

Lomuk, baloia jasotzen baditu behintzat, min handia egingo du bere 115 kiloekin eta duen abiadurarekin. Nataleko Smallek 89 kilo ditu eta, arituagoa izan arren, aurreneko bi edo hiru erasoaldietan plakatzea lortuko du, baina, hortik aurrera Lomu nagusituko da, eta berak ez baditu entseiuak lortzen atzean izango ditu Kronfeld, Little, Bunce, Zinzan Brooke eta Mehrtens bera ere.

## BOTE LASTERREAN

**Haka dantza.** Heriotza da, heriotza da! / Bizitza da, bizitza da (errep.) / Hona hemen gizona, gizon iletsua / bera da, bera da egin duena / eguzkiak argitzen du / eurek bilatzen dute / hemendik, handik! / Eguzkiak argitzen du.

**Belaunaldi berria.** Laurie Mains Zeelanda Berriko entrenatzaileak esandakoa: «Denboraldi zaila izan dugu, baina, nik pentsatu dut beti talde honek sekulako indarra zuela. Gazteek garaipen handiak lortu dituzte beraien herrialdeekin, baina, blokeatuta zeuden elastiko beltzarenekin».

**Carling kapitaina.** Ingalaterrako Carling kapitainak zera esan zuen Zeelanda Berriaren aurka jokatu ondoren: «Lomuren esperientzia oso gogorra izan zen guretzat. Zeelandarrek Rugby fantastikoa egin zuten momentu batzuetan, baina, alde nagusia ezker hegalean egon zen, Lomurenean hain zuzen ere».

**Jack Rowell.** Ingalaterrako entrenatzaileak ez zuen espero hain argi kanporatua izana Zeelanda Berriaren aurka. Galtzeko arrazoi nagusia, All Blacksek jarritako erritmoa izan zen. V Nazioetako Torneoan, txapelketa izugarria da, historikoa, baina, beharrezkoa da Hego Hemisferioko taldeen kontra jokatzeko. Horrela, beraien mailan egongo ginateke.

**Dirua Lomurengatik.** Halako arreta sortu du Jonah Lomu jokalaria bakartiak, non Hego Afrikako irratia batek 750.000 pezeta (30.120 libera) eskaini baititu Zeelanda Berriko hegal beldurgarria plakatzen duen Springbokseko edozein jokalarirentzat. Gogora delagun, bide batez, Lomu oso erlijiosoa eta bakartia dela. Bera bizi zen herriko egoera bihurria zela eta, eskola batean interan zezan eskatu zion aitari. Orain dela gutxi arte ez zion igandeetan jokatzeko uzten.

GERARD MURILLO Rugbyko tekniko ohia



## All Blacksek erraz irabaziko dute

are gehiago, potentzia dinamikoa nagusitu behar dela. Neurketa bakarra da eta irabazi egin behar da. Horregatik, bazter guztietara iritsiko diren jokalariek behar dira. Kronfeld, esate baterako, baloia aurkitzen den leku guztietan egon ohi da, eta bera ez badago, Zinzan Brooke egongo da.

Jokalariei hau ohituta dago 3. lerroko hegalean jokatzeko, oso dinamikoa baita. Aurrerako jokia egiten duen arren, ondo erakutsi du gai delako multzotik kanpo jokatzeko ere. Springboksek eta zeelandarren arteko alde nagusia, joko irekiko bilketetan dago. Izan ere, afrikarrek ez dakite uzartze irekien bidez jokatzeko. Zeelandarrek, aldiz, lurrean oso ondo moldatzen dira, eta horrek azkartasuna ematen dio atzekoekin jokatzeko.

Ingelesek eta Springboksek maula erabiltzen dute gehiago, indarra era-

biliz. Maila honetan, ordea, zaila da joko era horren bidez aldea egitea. Erabakigarriagoa gertatzen zaie zeelandarrei uzartze irekiak eragitea. Abiaduraz harrapatuko dituzte etxeok. Ez dute, beharbada, ingelesen aurka lortutako aldea egitea erdietsiko, baina 15 puntuko seguru baietz.

Alboko sakeetan izan dezake aukera txiki bat Hego Afrikak, baina, erdian jokatzeko, maul geldoan jokatzeko. Gogoratu behar dugu, hala ere, ingelesek jokaldi horretan lor zezaketela abantaila, munduko onenetakoa dutelako, baina, ez zen hain alde nabarmenik gertatu.

Asko hitz egin da egun hauetan Jonah Lomuri buruz. Egia da sekulako jokalaria dela, baina besteak ere hor daude. Jokalari bikainak ditu Zeelanda Berriak: Kronfeld, Zinzan Brooke, Bashop, Mehrtens.

IRITZIA

## Miarritze, Getxo eta Hernani ariko dira gaur Sanjoanetako Torneoan

K.A. / DONOSTIA

Aurten ere, Hernaniko Rugby taldeak bere txapelketa antolatu du, herriko festak aprobataz. Iaz 25. urteurrena ospatu zuen eta Getxo eta Hernaniko jokalariekin batera, Iparraldeko zenbait taldetako jokalariek aritu ziren. Aurten, lehen mailako bi talde handi izango dira gaur Landare zelaian, Miarritze eta Getxo.

Bi taldeak indartsu ari dira Frantzia eta Espainiako ligan. Getxok liga irabazi zuen orain bi urte, eta gainera hiru urtetan Kopako garaile izan

da jarraian. Miarritzek, 91-92ko finala jokatu zuen Parisen Toulon taldearen aurka.

Gaur arratsaldeko 6,30etan hasiko dira neurketak. Lehenik, Hernani eta Getxo ariko dira, gero, Hernani-Miarritze, eta azkenik, Miarritze eta Getxo. Neurketa bakoitzak 40 minutu iraungo ditu, 20 minutuko bi zatitan banatuta. Jokalarien artean, Irazoki, Gouloumet, Arrieta, Hontas, Azkargorta, Laskurain, Javitxin Diaz, Jonadab Diez, Aurrekoetxea, Manzano, Ondarts, Altuna eta Laguisquet ariko dira.